

Charo Requero • Historialaria

# «Prostituzioa egozten zietenean, galeretara bidaltzen zituzten»

‘Historia de la prostitución en Euskal Herria’ argitaratu berri du Charo Roquerok Txalapartarekin. Arautegi eta auzi agiri zaharretako lekukotzekin, emakumearen, miseriaren eta prostituzioaren aurpegi gordinak dakartza.

Irene Lasa

**G** Liburuaren hasieran azaltzen duzu nahiko zabaldua dagoela uste hau: Euskal Herrian ez dela egon prostituzioaren garapen handirik. Hala uste duzue zuek?

**E** Datuak hainbat testutatik ateratzean, testu horiek oso XIX. mendekoak izaten dira, oso sentimentalak, oso abertzaleak, Euskal Herri idealizatu bati dagozkionak. Baina nik ere, neurri handi batean, hori pentsatzen dut, arrazoi simple batengatik: Elizak eguneroko bizitzan eragin itzela zeukalako. Herriko apaizak sekular garrantzia zeukan. Eta pulpitan ez zuen zeruko kontuez soilik hitz egiten, eguneroko gauzez ere bai. Alkatearekin batera, apaiza zen boterea zuena neska bati fama ona edo txarra jartzeko edo neska bat herritik kanporatzeko. Itzelezko eragin soziala zuen, eta herri txiki batean emakumerik ez zen ausartuko ezertara. Eta horri beste gauza bat lotu behar zaio: Euskal Herrian garrantzi handia izan du *odolaren garbitasunak*. Atzeritarrak beti gaizki ikusiak ziren, juduak, agoteak, alderriak... Zaila zen haiek etortzea. Herriak txikiak ziren, oso sakabanatuta zeuden... Eta etxeokandareen eragina ere hor zegoen, familia zorrotz eusten, ez zuen ametitzen portaera *okerrik*...

**G** Baina gutxiago bada ere, egon bazeuden prostitutak, eta historian gehienak atzeritarrak izan dira Euskal Herrian.

**E** Bai, gizarte eta familia kontrolaren ondorioz. Hemen Donostian, adibidez, flandriarrak ziren batzuk. *La flamenca* ezaguna ez zen andaluziarra, Flandriakoa baizik.

**G** Prostituzio etxerik ere ia ez zegoen XIX. mendera arte. Bat aurkitu duzu, Iruñean.

**E** Bai, eta udalarena zen! Hor gaitz txikiaren kontzeptua zego-

en. Prostituzioarekin ustez emazteari ginetik kentzen zenion ezkontzako eginbidearen betebeharrak, bortxaketak saihestu, homosexualitatea eragotzi...

**G** Gizonaren premia betetzeko...

**E** Horixe, hain zuzen. Sinestezi-na iruditzen zait, udalak kudeatutako prostituzio etxea, zergak jasotzen handik... Hori guztia lotuta dago prostituzioaren inguruko fatalismoarekin. Saihetsezina dela prostituzioa? Eta zergatik izan behar du saihetsezina? Arauak badaude; bada, bete, ez dakit zergatik haiek [gizonek] izan behar duten halako karta zuri bat. Edonola ere, niri prostituzioa eskubide moduan erabat zilegi iruditzen zait. Norbaitek libreki, zirkunstantzia batzuk direla medio —bakoitzak ikusiko du zer zirkunstantzia diren—, prostituzioan aritzea erabakitzen badu, libre da. Ez da zertan kartzelara bidali.

**G** Zirkunstantzier ari garela, liburuan argi gelditzen da bai XIX. mendearen aurretik bai ondoren ere prostituzioa amaitzen duten nesketako asko neskaek zirela.

**E** Tristea da oso. Betikoa da: hemen familiaren ondarea ez zen banatzen, eta, baserria bere osotasunean oinordetzen zenez, gainerako seme-alabek, ezkontzea lortzen ez bazuten, emigratu egin behar izaten zuten, nora eta hiri-ra. Imajinatu, neska gaixo bat 12 urterekin hiri batean, apenas gatzeleraz zekiena, ikasketarik gabea, obedientzian hezia...

**G** Senarito-aren esku...

**E** Edo zure egoeraz baliatuko ziren emakume proxeneten esku... Pentsa, haurdun gelditza... Zer egin behar zenuen...?

**G** Eta gogor zigortzen zituzten.

**E** Bai, emakumeak, prostituzioa egozten zietenean, galeretara bidaltzen zituzten. *galera etxeetara*. Espetxe modukoak ziren, bai. Adibidez, haurdun bazeuden, haien esneak balio handia zuen,

eta inudejartzen zituzten, familia aberatsetako emakumeek ez zutelako bularririk ematen.

**G** Bezeroak inoiz gutxitan izan dira aipagai dokumentuetan...

**E** Noizbait azaltzen ziren auzi paperetan, baina inozialekin bakarrik. Agirian inoziala agertzen zen, eta aparteko agiri batean zihoan egiazko izena. Hori gertatzen zen pertsona garrantzitsua bazen edo, gehienetan, elizgizona bazen.

**G** Zergatik banatu duzu liburua bi zatitan, XIX. mendearen aurretik eta ondoren?

**E** XIX. mendetik aurrerako gizartea erabat desberdina izan zen, industrializazioak irauli egin zuen Euskal Herria. Labe Garraiak Bizkaian, merkataritza Gipuzkoan...

**G** Eta prostituzioa agerikoagoa bihurtzen, putetxeak...

**E** Batez ere Euskal Herriak Frantzia duelako ondano. Donostian, Iruñean eta Bilbon hori nabaritu egin zen. Gasteizen gutxiago. Bitxia da Gasteizkoa... Ez dut ia ezer aurkitu! Adiskide bati kontatu nion izango zela Gasteizen ez zegoelako militarrek eta elizgizonak besterik. Eta hark: «Orduan arrazoi gehiago egoteko!». Baina ezer gutxi aurkitu dut... Ezkuta-tuagoa egongo zuen.

**G** XIX. mendetik aurrera gauzak aldatu egin ziren. Arautu egin zen prostituzioa.

**E** Hiru pauso egin ziren. Debekua izan zen lehena. Hau debekatu dago, ez da legezkoa, ez da morala, eta zigorra espetxea da. Gero, XIX. mendean, arautzea etorri zen. Prostituzioarekin bizi behar dugunez, ez dagoenez beste erremediarik, eta prostituzioak gaitz benereok dakartzanez, arautu egingo dugu. Putetxeak kontrolatu, non ezar daitezkeen agindua, emakumeak kontrol medikoak pasatu ditzatela, baina... hori guztia gizonari begira da, gizonaren mesedetan. Horrekin



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

ezin duzu lortu emakumea hortik ateratzea, edo horretan ez sartzea.

**G** Adibidez, agindua zegoen Bilboko prostituzio etxeentzat: erakus-taltzari batean ikusgai egon behar zuten langileen osasun agiriak. Eta medikuak zuen altzariaren giltza.

**E** Bai, izugarria ezta? Bezeroa lasai egon zitekeen; prostituta haiek *garbiak* ziren. Hori zen haragi labelduna erostea bezala.

**G** Eta hirugarren pausoa zein izan zen?

**E** Abolizionismoa. Askoz beranduago etorri zen hori: feminismoarekin batera, XX. mendera iristen. Emakumeak konturatu ziren prostituzioaren arautzeak ez zela ezertarako balio. Egoera lasgarri berean jarraitzen zuten, baina kontrolpean, egiten zuten guztiaren berri ematen... Abolizionismoa, neurri batean, libre uztea zen, horretan lan egin nahi duenak egin dezala eta ez duenak nahi ez dezala egin. Hori teoriarik polita da, baina prostituta ez da edonolako langilea, babes bat behar du, eskubide batzuk... gauza berezi asko. Gaur egun nahi dutena bezala, lan eskubideak, gizarte segurantzak, gizarteratzea...

**G** Frankismoa iritsi zen, eta Saturrango kartzela aipatu duzu libu-

ruan. Arrazoi politikoengatik preso zeuden emakumeak eta prostituzioagatik atxilotutakoak ere bazeuden han.

**E** Badakizu zein den prostituzioaren arazo handienetako bat? Ez dela ezer frogatu behar; oso erraza da, salaketa asko izaten da horrekin, inbidia asko... Gerra ondoren horrelako asko izan ziren. Edo gerta zitekeen senarraren bila joan, hura aurkitu ez, eta emaztea eramatea, prostituzioa egotzita.

**G** Espedienteetan propio hori leporatzen zieten. Arrazoi politikoengatik zeuden preso, baina muturreraino laidoztatu nahi zituzten.

**E** Halakoa izan zen gerra ondoren, balio erlijioso ultrakontserbadoreetan murgildutakoak. Eta hor putza izatea egoztea...

**G** Lan hau egin eta gero, badago ezer «honek berdin jarraitzen du» pentsarazi dizunik?

**E** Gizartearen hipokresia. Oraindik ere, beste erremediarik ez eta prostituzioan aritu behar duenarekiko... Edo, aizu, hala libreaki aukeratu duelako; ikasle garairan nik ezagutu nituen horretan aritzen ziren ikaskideak; ba, aizu, libre ziren. Baina prostituzioa oraindik ere degradante gisa ikusten da... Okerrago, zerbait zartarra balitz bezala, desatsegina...